

Bolivia – Trinidad – Beni

Lezon, 2020ko otsailaren 21ean

Ez dakit nondik hasi. Zer esan, nola esan. Ezinezkoa baita denbora guzti honetan bizitako hamaika sentipen hitz gutxitan laburbiltzea.

Gogoan dut uztailak 11 hura, uda beteko ostegun eguzkitsua, Lezo Institutuko ikasle ohi eta nire lagun June eta biok Donostiatik Madrilerantz autobusez abiatu ginenekoa. Barajaseko aireportuan elkartu ginen gure bidaide izango ziren José Antonio eta María Jesúsekin, laurok batera osatu baitugu proiektu honen lantaldea; hegazkinera igo, loak hartu, eta, konturutzerako, Bolivian esnatu ginen egunsentian.

Pare bat egun Santa Cruzen igaro ostean, gure helmugara jo genuen, Trinidad izeneko 122.115 biztanleko hiri txirora, hain zuzen ere. Bertara iritsi bezain laster hasi ginen buru-belarri gure bost proiektuetan. Proiektuak kanpotik nahiko antzekoak izan arren, barrutik ezagututa, zeharo desberdin sentitu nituen.

Mocoví kartzelan bizitakoak samindu eta sumindu ninduen gehien, izan ere, ez nuen sekula imajinatu hain egoera muturrekoaren lekuko izango nintzenik: jatekorik ez, edatekorik ez, janztekorik ez, non lo egitekorik ez, garbitzekorik ez... ezer ez. Baina astean bitan irribarrez eta gogotsu artatzen gintuzten haien bizileku xumean.

Hemezortzi urtetik beherakoen *Maná* kartzela izan zen niretzat guztietan bereziena. Baldintzak *Mocoví* kartzelakoak baino askoz ere hobeak ziren. Astean hiru egunetan joaten ginen, eta bertakoen prestutasunak alaitu ninduen gehien. Berdin zuen zer proposatzen genien, dena egiteko prest zeudela betiere 38°C-ko eguzkipean. Nire adin-tarte antzekoa izateak ere asko eragin zuela pentsatzen dut, elkarren arteko hartu-emanaren paregabea baitzen.

Hemezortzi urtetik beherakoen *Chetequiye* kartzelak asko bete zidan barrua, zeharo ase ninduen, bertan zeuden gazteek ez zutelako inor kanpoan. Haietako asko eta asko gurasoek abandonatu zituzten txikitari, edota gurasoak ez zeuden gazte haiek zaintzeko moduko egoeran. Astean bitan joaten ginen, eta milaka istorio gogor entzuten genituen haien ahotsetatik. Bizitza borrokalariaren eredu garbia ziren haiek denak.

Hemezortzi urtetik beherakoen *Esperanza* etxeak ere bazuen bere xarma. Gaiztakeriaren bat egin, eta, aldi berean, tratu txarrak jasandako neskatila eta emakumeak nahasten

ziren hemen. Pena da haiekin egoteko denbora gutxi eduki genuela, astean behin soilik joaten baikin. Hala ere, haien alboan igarotako uneak oso-oso bereziak izan ziren.

Azkenik, *Fabián Vaca Chávez* izeneko eskolara joaten ginen astean hirutan. Tristea baina aldi berean izugarri polita izan zen haien jarduna gertutik ezagutzea. Tristea diot, oso kaxkarra zelako bai ikasleen maila baita irakasleen motibazioa ere. Haien maitasuna, ordea, bukaezina zen. Korrika zetozkigun guztiak besarkada eske, eta zin dagizuet gutxitan sentitu naizela hain-hain maitatua. Biziki berezia izan zen umeekiko harremana.

Gogoan dut hasieran beldur nintzela, ez nekiela gai izango ote nintzen proiektu nahiz gazteen beharrei behar bezala erantzuteko. Denborak aurrera egin ahala, ordea, konfiantza sentitu nuen nigan, eta, konturatu nintzen, beste ezer gabe, nire presentziak soilik jada alai zitzakeela gure proiektuetako protagonistak. Zer ongi pasa dudan haiekin, zenbat ikasi dudan! Azken finean, hartu-eman garbia izan da, eta aitortzen dut eman baino askoz ere gehiago jaso dudala. Egia da tentsio uneak eta momentu gogorrak ere bizi behar izan ditudala. Sekula ikusi eta entzun ez ditudanak entzun ditut errealitate gordin eta krudela bizi duten gazte gaixoen ahotsetatik. Etsipenetik pixka bat eta ametsetik asko duten gazteen ahotsetatik, hain zuzen ere. Baina horrek ni indartsuago egiten eta alboan dudana aintzat hartzen lagundu dit. Hitz batean esanda, ikasten, dudana balioesten, bizitza zein injustua den konturatzen. Hobetu beharrekoak ere egon dira, noski, beraz, hanka sartzeak gogoan hartu, eta hurrengorako ikasten saiatuko naiz, berriro errepika ez daitezen.

Laburbilduz, ezin dut bizitakoa laburtu. Banekien berezia izango zela, are bereziagoa lehen boluntariora izanda. Hala ere, aurreikuspen guztiak gainditu, eta ezin dut alaiago eta eskertuago egon. Eskerrak eman nahiko nizkioke Proyde-Proega Fundazioari nahiz Trinidaden harrera ezin hobea egin diguten pertsona guztiei. Berezi Eutiquio eta Lindari, ezin baita halako bizipen ahaztezinean haiek baino pertsona hoberik eduki alboan. Eskerrik asko esperientzia hau bizitzea egia bihurtu duzuen guztioi. Orain gutxi iritsi arren, beste urte batean bueltatzeko irrikan nago, Trinidaden utzi baitut ni naizen horren zatitxo bat.

Bihotz-bihotzez, milesker guztioi.

Ainhoa Salaberria Garmendia